

## De aquellos polvos vienen ahora esos lodos

**steilas**-ek gatazka kolektiboa sartu du 2014ko Urriko Akordioaren 8. artikuluko 6. puntuko 3 paragrafoaren inguruan, Batzorde Paritarioan hartutako erabakia dela eta. ELAk eta *Kristau Eskolak* eginiko paktu horren arabera lan harremana bukatua duten langileei finikitoan ez zaizkie ordainduko murrizketen ondorioz pilatutako atzerapenak. Salaketa hau ez omen du gustukoa izan ELAk, eta idazki apokaliptiko baten bitartez -beste gauzen artean- Akordioa bera kolokan jartzea leporatzen dio **steilas**-i.

Gizarte ekimeneko ikastetxeetako gatazkari konponbidea aurkitzea ez zen erraza izan. Urriko akordioak, erabat inor asebate ez bazuen ere, sektoreko sindikatu guztiak elkartu zituen. Zalantzaz zalantza eta luze eztabaidatu ondoren -azken orduko negoziazioak barne- bere osotasunean sinatu zuen **steilas**-ek. Hain zuzen eztabaidagai den puntua -ikastetxeekin bere lan-harremana eten duen langileari atzerapenak ordaintzea- izan zen sinatzera eraman gintuen funtsezko puntua. ELA-k eta *Kristau Eskola*-k bazekiten hori eta ez lituzke harritu behar Akordio Transakzionalaren puntu bat aldatzen zuen akordioa salatu izanak. **Lehendabiziko akatsa.**

Aipatu erabakia hartu zuen momentuan bertan bere asmoa adierazi zien **steilas**-ek ELAri zein *Kristau Eskolari*; bere horretan jarraituz gero bide judizialak jorratuko genituela, alegia. Bi erakundeek aldaketaren legaltasuna babestu zuten eta, horrez gain, juridikoki blindatua omen zegoela zioten. Dirudenez, ELAK orain aitortuta hori ez zen egia eta akordio txapuzeroa izan da hau. **Bigarren akatsa.**

Egia da -eraginkortasunaren mesederako- gainontzeko sindikatuek ELA eta *Kristau Eskolari* utzi geniola akordio orokorraren kudeaketa. Itxura guztien arabera, ELAk ez zuen ondo burutu bere lana eta gauza garrantzitsuez ahaztu zen. Ez da egia, hala ere, erakunde horiek kontua Paritarioan adostu zutenik. Hor dago -hain zuzen ere- arazoaren muinetako bat eta, badu zerikusirik sindikatu nagusiaren sindikalgintzarekin. Akordioaren aldaketa Batzorde Paritariotik at adostu zen eta proposamen itxi gisa aurkeztu ziguten Paritarioan. Ez zuten nahikoa arrazoirik eman ezta orain eskatzen dizkiguten alternatibarik aurkezteko eperik izan ere. Arduragabekeriaz jokatzuz, Batzordea saihestu zen eta gainontzeko sindikatuak gutxietsi zituzten. Ez zen izan, ez aurretik ez ondoren hauteman ziren arazoak sindikatuen arteko kontsensurik bilatzeko saiorik. **Hirugarren hutsa, eta larriena.**

Oraingoan, ELAk bere akatsak estali nahi ditu langileen artean beldurra zabalduz. Ihesbide hutsa. **steilas** ez da tranpan ereriko eta orain arte bezala, ikastetxe pribatuetako Giza Ekimeneko langile guztien lan-baldintzen alde lanean jarraituko du.

***Irakaskuntzan steilas***

<b>ARABA:</b> Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@steilas.eus
<b>BIZKAIA:</b> Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@steilas.eus
<b>GIPUZKOA:</b> Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@steilas.eus
<b>NAFARROA:</b> Joaquin Beunza 4-6 behe	31014 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948229790	nafarroa@steilas.eus

**De aquellos polvos vienen ahora esos lodos**

**steilas** ha presentado una demanda de conflicto colectivo contra el acuerdo de la Comisión Paritaria en relación al párrafo 3 del punto 6º del artículo 8 del Acuerdo de octubre de 2014. Como consecuencia de ese pacto entre *Kristau Eskola* y ELA, no se abonaron los atrasos pendientes consecuencia de los recortes salariales en los finiquitos del personal eventual que finaliza su relación con la empresa. Esta demanda no ha gustado a ELA, que en un escrito apocalíptico acusa a **steilas** -entre otras cosas- de poner en cuestión el futuro del Acuerdo.

La salida del conflicto del sector de los centros de Iniciativa Social no fue fácil. El Acuerdo de octubre, sin satisfacer plenamente a nadie, tuvo la virtud de aglutinar a todos los sindicatos del sector. **steilas** lo firmó en su totalidad tras muchas dudas y debates, incluyendo negociaciones de última hora. Precisamente fue el punto ahora en cuestión (el pago de los atrasos salariales al personal que cesa en los centros) una de las razones fundamentales que nos llevaron a la firma. ELA y *Kristau Eskola* lo sabían y no debieran ahora de extrañarse de que hayamos denunciado el Acuerdo de la Paritaria que modifica totalmente un punto concreto de lo acordado. **Primer error.**

Ya el mismo día en el que se tomó esa decisión **steilas** avisó a *Kristau Eskola* y ELA que de persistir en su empeño iniciaríamos acciones judiciales. Ambas organizaciones defendieron la legalidad de dicha modificación y además la consideraron jurídicamente blindada. Según reconoce ELA ahora, eso no era verdad y el acuerdo tiene mucho de chapucero. **Segundo error.**

Es verdad que -por motivo de eficacia- los sindicatos delegamos en ELA y *Kristau Eskola* la gestión del acuerdo general. Al parecer ELA no hizo bien su trabajo y obvió cuestiones importantes. Lo que no es cierto es que estas organizaciones acordaran su modificación en la comisión Paritaria. Y es aquí donde radica parte del problema, y que tiene mucho que ver con la práctica sindical del sindicato mayoritario. La modificación en cuestión se pactó al margen de la Comisión Paritaria, donde presentaron una propuesta ya cerrada. Ni se dieron explicaciones suficientes sobre la cuestión ni tuvimos opción a presentar las alternativas que ahora nos demandan. De manera irresponsable, se puenteó la Comisión Paritaria y se ninguneó al resto de sindicatos. En ningún momento, ni previo ni posterior se intentó buscar un consenso sindical sobre los problemas detectados. **Tercer error, el más grave.**

Ahora ELA intenta tapar todos estos errores generando alarmismo entre los trabajadores y trabajadoras del sector para eludir sus responsabilidades evidentes. Una nueva huida hacia adelante. **steilas** no va a caer en la trampa y va a seguir trabajando por las condiciones laborales de las trabajadoras y trabajadores de los centros privados de Iniciativa Social.

Irakaskuntzan steilas

<b>ARABA:</b> Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	<a href="mailto:araba@steilas.eu">araba@steilas.eu</a>
<b>BIZKAIA:</b> Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	<a href="mailto:bizkaia@steilas.eu">bizkaia@steilas.eu</a>
<b>GIPUZKOA:</b> Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	<a href="mailto:gipuzkoa@steilas.eu">gipuzkoa@steilas.eu</a>
<b>NAFARROA:</b> Joaquin Beunza 4-6 behe	31014 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948229790	<a href="mailto:nafarroa@steilas.eu">nafarroa@steilas.eu</a>